

BERRIGARA

198. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1995, urriak 20

**Asier Garitano
Cadiz taldeak
kanporatua**

**Udazken kulturala
Gabonak bitartean**

**Abdon Juaristi
pintorearekin
berriketan**



Gurasoak lanean

Umeak haurtzaindegian ala haur zaintzaileekin?

OPEL VECTRA BERRIA

merit

**GUTXIK EMATEN DUTE
HAINBESTE HAIN GUTXIREN
TRUKE.**

OPEL BANATZAILE OFICIALAK,
ESPERIENTZIAZ ONENAK.

OPEL

**TALLERES
OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnok: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)





Altzarien dekorazio eta erakusketa

- BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJIARI EGOKITUTA
- EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URIK!!
- LEIHO TERMOAKUSTIKOAK
 - ATEAK
 - ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK

ARROZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefona eta Faxe: 76 54 91

**ZATOZ GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA**



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

**CONGO**

Ostirala: 22.30

Larunbata: 17.00, 19.30,
22.30.Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen
eguna).**LLOVIENDO PIEDRAS**
Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ *Parque jurásico* filmearren arrakastaren ondoren, **Michael Crichton** idazlearen nobela batetan oinarritutako filmea zuzendu du **Frank Marshall**ek. Afrikara joandako espedizio batek kimikoki perfektoak diren diamanteak aurkitu ditu Kongon, Afrikan, baina espediziokide guztiak hilik azalduko dira ustekabez. Kaliforniatik bidalitako talde batek inbestigazioarekin jarraitu beharko du...

▼▼ **Ken Loachen** zikloarekin jarraituz, Cannesen 1993an saritutako filma. *Bob William*sek (**Bruce Jones** aktorea) ahal duena egiten du egungo Ingalaterran bere familia aurrera ateratzeko. Furgoneta galdu ondoren, ez daki zer egin bere alabaren jaunartzeko jantzia ordaindu ahal izateko...

▼▼ **Udal Musika Bandak** kontzertua eskeiniko du igandean 12.30etan Novedades aretoan. Alfredo González Chirlaqueren zuzendaritzapean, Bandak honako piezak eskeiniko ditu: *Euskal Herriko kantak* (J. Franco), *Oberon* (C.M. von Weber), *Diagram* (A. Waignein), *Una noche en Calatayud* (P. Luna) eta *Evolutions* (A. Reed).

Deiak

▼ **Juanjo Altuna**ren margoak asteartera arte ikusgai Donostiako Olaetxe Galerian (Aldapeta, 5).

▼ **Eusko Alkartasuna**k urriaren 29an Bera de Bidasoan ospatuko duen Alkartasuna Eguna joateko autobus eta bazkari txartelak Alkartetxean salgai.

▼ **Behobia-Donostiara** joateko autobusa antolatu du Zaleak Atletiko taldeak. Izen-ematea 76 21 30 telefonoan.

▼ **AEK Eguna** joateko autobusa igandean 10.15etan Beheko Estaziotik. Izen-ematea Akulu Euskaltegian (76 05 18 telefonoa).

▼ **"Re9n"** titere tekla ikuskizuna larunbatean 8etan Seminarioan. "VI. Fontsi memoriale"ren barruan.

Ogia

▼ **Igandea 22:** Ogizun.

FARMAZIAK

- ▼ **Osteguna 20:** Guallar/Español.
- ▼ **Larunbata 21:** Estella/Corcu.
- ▼ **Igandea 22:** Estella/Irizar.
- ▼ **Astelehena 23:** Mozos/Amez.
- ▼ **Asteartea 24:** Camacho/Ruiz.
- ▼ **Asteazkena 25:** Puy/Morales.
- ▼ **Osteguna 26:** Guallar/Azkoaga.

MEMESA

ARRASATE 79 42 22 ARETXABALETA



SFK

Udazken kulturala

Musika, antzerkia edota zinea protagonistak

Asteartean aurkeztu zen Udazken Kulturalaren aurtengo edizioa. Finlandiako Kvartettilaulajat abesbatzak emango dio hasiera aurtengo edizioari datorren ostiralean, hilak 27, arratsaldeko 8etan Mariaren Lagundian eskeiniko duen kontzertuarekin. Larunbatean, urriak 28, ordu eta toki berean, Pablo Sorozabal boskotearen emanaldia izango da.

Horrela, datozen bi hilabeteetan zehar musika, antzerkia, zinea edota dantza ikuskizunak ere tartekatuko dira. Guztira 12 emanaldi izango dira eta, ohizkoa denez, Gabonetako Kontzertuak Udazken Kulturalari amari emango dio abenduaren 23an.

Gainontzeko musika emanaldiak honako hauek izango dira: Willibald Guggenmos organojole alemaniarraren kontzertua azaroaren 4an, Udal Musika Bandak Santa Zeziliako kontzertua eskeiniko du azaroaren 19an, Legazpia abesbatza azaroaren 25ean etorriko da, Musika Eskolako taldeen emanaldia abenduaren 1ean izango da eta, azkenik, Jose Manuel Azkue Donostiako Santa



Abenduaren 2an Donostiako Eskola dantza taldea izango da.

Maria Basilikako organojolearena abenduaren 9an.

Bestalde, Donostiako Eskola Dantzataldeak abenduaren 2an bere ikuskizuna eskeiniko du Frontoian eta Xamatzen X. urteurreneko jaialdia

abenduaren 16an egingo da. Zinearen 100. urteurrenerako tokia ere izango da eta azaroaren 18an musika biziaz lagundutako aintzinako zine mutua emanaldia izango da Novedadesen. Era berean, Kultur Etxeko Islada

Aurrerantzean urte osoan zehar antolatuko da eta ez bi hilabetetan bakarrik

bideogelak prestatu izango dira abenduaren 13an eta 14an.

Antzerkiari dagokionez, 3 ikuskizun iragarri dira: azaroaren 3an Bergarako Virago taldeak Jean Geneten "Las criadas" lana antzestuko du, azaroaren 24an Maskarada antzerki taldearen "Ernesto izatearen garrantzia" eta abenduaren 29an Karraka taldearen "Pecata minuta".

Aldi berean, ondoko erakusketak ikusgai izango dira datozen hilabeteetan: "Ondarea berreskuratzen: 1992-1995" (urriaren 27tik azaroaren 19ra), "Seilu eta diru bildumazaleen erakusketa" (azaroaren 25etik abenduaren 3ra), "Jostailuen erakusketa" (abenduaren 11tik 15era), "Bergarako margolariak" (abenduaren 22tik urtarrilaren 1era) eta "Bergarako eskultoreak" (urtarrilaren 4tik 14ra).

Udazken Kulturalako emanaldi guztietarako abonua 3.500 pezetatan jarriko dira salgai (langabetu eta ikasleentzat 2.000) eta saio bakoitzerako sarrerak astebete lehenago jarriko dira salgai Kultur Etxean.

**Zure
konfidantzako
denda**



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Arrasateko INEMen ixtearen kontra

ELAk Arrasateko INEMen zerbitzuak ixtea salatzen du. Bide batez, Institutuari eta Deba Bailerako udalei gestioak egin ditzatela eskatzen die behin behineko kokapena aurki diezaioten beste nonbaiten, baina herrian bertan.

ELAk, INEMen ixtea eragin duen ekintza batere aringarrik gabe gaitzesten badu ere, horrek ez du justifikatzen, gure eritziz, zerbitzu honen beharra duten langileak, langabe egoitea nahiko kalte ezpalitz bezala, gainera Eibarreraino joan beharra izatea legezko betebeharrak konplitzera, horrek dakartzkien gastu eta beste gale-rekin.

ELAk deritzo, INEM bezalako erakunde batek horrelako derrigorrezko egoerei erantzuteko beste soluziorik eskaini behar lukeela, eta ez errezenari heldu ondorioak langileen bizkar botaaaz.

Horregatik, INEM eta Deba garaiko udalei eskatzen diegu, elkar hartuta saiatu daitezela irtenbidea ematen eta, beraz, ez dadila izan langabetuak 50 Km. egin beharra, sarri gertatzen den bezala.

ELA DEBA ESKUALDE BATURA

Herri Olinpiadak kolokan

Badira dagoeneko sei urte pasatxo, Bergarako gazteen arteko harreman eta giroa zertxobait hobetzeko, une entretenigarri batzuk igaroz, eta udako arratsalde aspergarriak "aitzakitzat" hartuz, herri olinpiadak ospatzen hasi zirenetik. Urte guzti hauetako balantzea, orokorrean egiten badugu, oso positibotzat jo dezakegu, guztien partetik, bai partaidetzaren aldetik, jasotako laguntza guztien aldetik eta baita antolakuntzaren aldetik ere, nahiz eta azken urte honetan guztien aldetik ere beherakada bat eman. Makina bat gauza dira udako herri olinpiadez aparte antolatu ditugunak, tartean nesken futbito txapelketak, bazkari herrikoiak eta pare bat aldiz Mariaren Lagundiko zinema aretoa betetzea lortu dugun Gabonetako lehiaketa. Urte guzti hauetan eboluzio nabari bat eman da, bai partaidetzaren aldetik eta baita antolakuntzaren aldetik ere.

Guk bigarren eboluzio hori azpimarratu nahi genuke batipat, izan ere oso positibotzat jotzen dugu azken sei urte hauetan antolakuntza mailan igaroden jende guztiaren gogoia eta lana. Salbuespenen bat izan ezik, Olinpiada Batzordeak etengabeko aldaketak ezagutu ditu eta gure ustez hori beha-

rezkoa da. Hau dela eta, gure ardurazaltzera gatzokizue, izan ere momentu honetan oso jende gutxi gaude Olinpiada Batzordean, eta horrela lan egitea ezinezkoa zaigu. Arduraz hau ez da antolakuntzara bakarrik mugatzen, parte hartzerako orduan ere jendearen artean baztertze bat somatu bait dugu.

Honela ba, oraingoan, Gabonetako lehiaketan zentratuz, gazte guztien kolaborazioa eta partaidetza eskatzen dugu, azken garraixi honen bidez, Gabonetako lehiaketa hori aurtengoan ere ospatzea posible izan dadin, hortaz urriaren 31n arratsaldeko 7etan Kultur Etxean egingo dugun batzarrera guztiak gonbidaturik zaudete. Batzar honetara bai antolakuntza mailan eta baita partaidetza mailan ere parte hartu nahi duten guztiak hurbil daitezela eskatzen dugu. Azken urte hauetan Bergarako herrian izan dugun mugimendu guzti honek aurrera jarrai dezan nahi badugu, gazte kuadrilen berretako partaidetza eskatzen dugu.

Guk, batzorde honetatik, animatzeko eskatzen dizuegu benetan merezi duela uste dugulako, guzti hau herriaren eta gazte jendearen gauza bat delako eta denon artean ez badugu aurrera eramaten, inork eramango ez duelako.

OLINPIADA BATZORDEA

Tiira biraka



UNAI AZKARATE

◆ **Iñigo Elkoro atxilotua**

Ertzaintzak Iñigo Elkoro Aiatui intsumitu bergararra atxilotu zuen asteartean. Iñigo Elkoro epaitu eta espetxeratzeko agindua eman zuen epaile berberak eman zuen abokatu bergararra atxilotzeko agindua.

◆ **Lagunartea**

Larunbatean Aranzabal Lagunartearen bilera izango da 13.00ean Kultur Etxean.

◆ **Jubilatuak**

Urriaren 29an Jubilatuen eguna ospatuko da Osintxun. Bazkaria Txuringon izango da eta txartelak, Osintxuko tabernetan eros daitezke.

◆ **UNED**

Asteartean 7etan UNED ikastetxearen aldeko plataforma bat sortzeko bilera egingo da UNEDen. Bestalde, Euskara Departamentuko matrikula urriaren 31ra arte izango da zabalik.



Argazkian, ikasle bergararrak Lierni Mujika eta frantziarrekin batera pasa den martxoan Reimsen.

Reimseko Libergier institutuko ikasleak Bergaran bisitari

Miguel Altuna institutuak Reimseko (Frantzia) Libergier institutuarekin egindako interkanbioaren barruan, 11 ikasle frantziar heldu ziren atzotegure herrira. Reimsen lanean ari den Lierni Mujika irakaslearen bitartez egin ahal izan da interkanbioa. Horrela, Miguel Altunako Administratibo moduluko Leire Arbelaitz, Mireia Larrañaga, Ainhoa Menika eta Ana Serrano ikasleak, Pili Arin ikasketa burua, Iñaki Larrañaga zuzendariordea eta Caridad Orozko irakaslearen laguntzaz joan ziren Reimsera martxoaren 23tik apirilaren

1era bitartean. Han bere ikasketen analisi konparatibo bat egin eta hangoz bizimodua ezagutzeko aukera izan zuten. Guztiek oso esperientzia aberasgarritzat jo dute interkanbioa eta hone-lako esperientziak errepikatzeko asmoa azaldu dute. Izan ere, 1995-1996 ikasturteko interkanbioa Europako Ekonomi Elkarteko "Leonardo" ikasketen planaren barruan kokatu nahi dute.

Frantziarren bisitak

Frantziar ikasleen oraingo bisita bergararrek hara egindakoaren

itzulera litzateke. Atzoko harreraren ondoren, gaur goizean Udalak ongi-etorria eskeini die Pleno Aretoan eta ondoko egunotan programa zabala izango dute. Astebukaera libre izan ondoren, datorren asterako ondoko bisitak prestatu zaizkie: Bilbora astelehenean, Algodonera eta Antzuolako Elay lantegietara bisitak asteartean, asteazkenean Donostian izango dira, ostegunean Arrasate eta Oñati bisitatuko dituzte, ostiralean Gasteizera joango dira eta datorren larunbatean, urriak 28, Reimsera itzuliko dira.

HILDAKOAK

Elisabet Dulanto Zabala
Urriak 14, 32 urte

JAIOTAKOAK

Ainhoa Zabaleta Velasco
Urriak 8

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...
Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

AZPEITXI

Aranerreak, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

◆ Osa anaiak eta Aranzabalekin afaria

Angiozarko Peña Osak Osa anaiak eta Agustin Aranzabalekin afaria antolatu du urriaren 26an gaueko 9etan Ortzi erretegiari. Prezioa 2.500 pezetakoa izango da eta izena emateko epea urriaren 23ra arte izango da zabalik Ortzin bertan.

◆ Jubilatuetan Gernikako feriara urriaren 30ean

Urriaren 30ean Gernikako feriara joateko irteera antolatu da Jubilatuetan. Irteera 8.45etan autobus geltokitik egingo da eta, feria ikusi ondoren, bazkaria ordubietan Estarta jatetxean. Ondoren Mundakara bisita eta 19.30etan Bergarara itzulera. Prezioa 3.200 pezetakoa izango da eta izen ematea Jubilatuen idazkaritzan egin behar da.

◆ Aske taldearen deia

Aske taldeak ikasturte berri bati hasiera eman dio. 17 urte edo gehiago badituzu eta zure herriko gaztetxoekin zenbait iharduera ludiko sozio-kultural egiteko prest bazaude, ostiral honetan, 21, edo hurrengoan, 27, gaueko 8.30etan San Pedro kaleko (Biltoki ondoan) lokaletara hurbildu zaitezke. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 76 18 79 telefonora.

◆ Sendabelarren ikastaroa

Baserritar Emakumeen Elkarteak antolatuta, sendabelarrei buruzko ikastaroa izango da datozen hiru asteartetan (urriaren 24tik aurrera) 15.30etan Bergarako Kultur Etxean.



Zerga eta tasen igoera Udal Gobernuak osatzen duten alderdien botoekin onartu zen.

Udal zerga eta tasen igoera onartu zen Plenoan

Bataz beste %4,3ko igoera ezarriko zaie

Astlehenerako Plenoan, Udal Gobernuak osatzen duten alderdien (EAJ, EA eta PSE-EE) aldeko botoekin udal zergak bataz beste % 4,3 igotzea onartu zen. HBk kontrako botoa eman zuen. Aurtengorako aurrikusitako IPCaren arabera, %4,3an igoko dira udal zerga gehienak: landalur eta hirilurren zerga, iharduera ekonomikoena (lehengo lizentzia fiskala), ibilgailuen zerga, hirigintza baimenak, kanposantuko tasak, etxez etxeko zerbitzua, kiroldegia, udal igerilekuetako eta Euskaltegiko prezioak, ludotekakoak, bideogela eta udal lokalen alokairua.

Eraikuntza zergak % 4,2ko igoera izango du eta merkatuko base-ritarrei eta postu fijosari %4,3

igoera ezarriko zaie. Anbulanteek, berriz, ez dute igoerarik izango. HB abstenitu egin zen azken puntu honetan. Urak, berriz, %23ko igoera izango du baina erreziboan azaltzen diren ura, zaborrak eta estolderia kontzeptuak kontutan izanik igoera %8,8koa izango da. Zaborrak %4,3a igoko dira, estolderia %26an gutxituko da eta, ura, esan bezala, %23a igo. Plenoan jakinarazi zenez, uraren prezio-igoera Gipuzkoako Ur Kontorsorioak ezarritako prezioen igoeratik eman da. HBk zerga eta tasak igotzea gestio txar baten ondorio dela azaldu zuen Plenoan eta Udal Gobernuak, berriz, igoera beharrezkoa dela erantzun zuen, IPCaren igoerara mugatzen baita.

IBARGUREN PENTSUAK


Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA



Maila haundiko ganadua erakutsi zen Elosuko ferian.

Jendetza ugari eta goi mailako produktuak Elosuko ferian

Antonio Olaizola azpeitiarrak sari nagusia eraman zuen

Milaka lagun bildu ziren ostegunean Elosuko Ferian. Eguraldia primerakoa izan zen eta, azken urteetan gertatu bezala, partaide-tzari dagokionez, marka guztiak hautsi ziren berriz ere. Guztira 150 abere inguru eta 85 bat salmenta postu izan ziren Elosun. Jendetzari dagokionez, antolatzaileek egindako kalkuluen arabera, 4.000 bat lagun bildu ziren Elosun Pilarika egunean.

Ganaduari dagokionez, Juan Mari Rezabalek eta Joseba Lizarralde auzoalkateek osatzen zuten epaimahaiak gorai patu egin zuen aurkeztutako abereen maila. Antonio Olaizola azpeitiarrak eraman zuen sari nagusia behi talde onena aurkezteagatik. Bestalde, behietan,

blonda arrazan, Pako Badiola Elosuko Bentaoste baserrikoa izan zen irabazlea, pirenaikan Bergarako Hirumendi elkarte, asturiarrean Agustin Badiola Elosuko Kortaberri baserrikoa, txarolesean Jose Mari Beristain Elosuko Etxauneko eta, azkenik, limousinetan Txomin Oruesagasti elosuarra. Behi onenaren saria Pako Badiolak eraman zuen, txekor onenarena Antonio Olaizola Agitekoak, Asensio Sodupe azpeitiarrak behor onenarena, Ignacio Etxabe aizarnazabaltarrarentzat izan zen mandorik onenarena, aharien saria Maria Balerdi altzotarrak eraman zuen eta, azkenik, Juan Iraola bidaniarrak idi onenei eta astorik onenari zegokiena irabazi zituen.

◆ Etxeko landaren eta bertso ikastaroak

JARDUNek bi ikastaro antolatu ditu datozen hilabeteetarako: Bertso ikastaroa eta Etxeko landaren ikastaroa. Bertso ikastaroa azaroaren 3tik abenduaren 22ra bitartean izango da ostiral iluntzetan Gartzela zaharrean. Ainhoa Agirreazaldegizango da irakaslea eta izena emateko epea urriaren 31ra arte zabalik izango da JARDUNen. Prezioa: 2.000 pza. bazkideentzat eta 2.500 bazkide ez direnentzat. Etxeko landaren ikastaroa, berriz, azaroaren 3an hasi eta 10 ostiraletan zehar emango da, arratsaldeko 3retatik 5ak arte Gartzela zaharrean. Izena urriaren 31ra arte eman ahal izango da eta prezioak honako hauek izango dira: 3.000 pza. bazkideentzat eta 3.500 bazkide ez direnentzat. Argibide gehiago nahi izanez gero, JARDUNeko lokaletara hurbildu edota 76 08 19 telefonora deitu dezakezue.

◆ Bergarako gazteak!!

Aske atsedean taldeak dei egiten die 12 urtetik 15 urtera bitarteko gazteei larunbatetan 4retatik 6etara Mariaren Lagundian antolatuko diren ekintzetan parte hartzeko.

◆ Hiru atzerritar atxilotuta Bergaran

Ertzaintzak hiru atzerritar atxilotu zituen astearte arratsaldean "Cristina" jantzidendan eta "Trudi" erlojutegian lapurretak egiten saiatzeagatik. Espolioan zuten kotxean atxilotu ondoren gauean libre utzi zituzten.

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32


**LONBIDE
OINETAKOAK**




Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**



15 urte zure zerbitzura
Eskerrikasko zuen
konfidantzagatik



Bolu 24, behea BERGARA



Tfnoa eta Faxa: (943) 76 30 57

Elikadura

Elikagaien kontserbazioa


- Zeintzuk dira elikagaiak kontserbatzeko dauden metodoak?

- Bueno, historian zehar beti egon da elikagaiak mantentzeko kezka hori eta gatzak eta espeziak erabili izan dira kontserbaziorako. Gaur egun metodo horiek, mantentzeko baino gehiago, zapora bat lortzeko erabiltzen dira. Kontserbazio modu asko daude baina garrantzitsuena elikagaiak hozte eta konjelatzearekin iritsi zen. Bestalde, "envasado al vacio", aditibo kimikoak, elikagaien lehorketa eta irradiazio metodoak erabiltzen dira.

- Zein diferentzia dago horien artean?

- Lehendabizikoak modu naturalak dira eta errefrigeratu eta kongelazioa ere bai aditiboak erabiltzen ez badira. Aditibo kimikoen metodoa berriz ez da hain naturala elementu kimikoak erabiltzen baitira (askotan beharrezkoa izaten delako). Beti ere kontu handiz ibili behar da kantitate handietan kaltegarria

izan daitekeelako. Elikagaien lehorketa egiten denean bakteriek ez dute aktibitate ura behar dutelako bizitzeko eta, azkenik, kontserbazio irradiatuarekin egindako esperientzien arabera, metodo honek ez du jendearen aldetik harrera onegia izan. Horrelako elikagaiak asko kontsu-




IKER IRIONDO
(Sukaldartia)

mitu ezkerro, gorputzari kalte egiten diete.

Asko erabiltzen dugun beste metodo bat enbotatzea da; beroaren eraginez mikroorganismoak hil egiten dira baina denbora eta temperatura egokian prestatu behar dira.

- Errefrijerazioa eta

"Konjelatutako elikagai guztiek, denborarekin, kalitatea galtzen dute"



Erabiltzen jakin ezkerro elikagaiak konjelatzea ez da txarra.

konjelazioa gomendatzen dituzu, beraz.

- Erabiltzen jakin ezkerro, oso lagungarriak izan daitezke. Ez da komeni frigorifikoa elikagai beroak sartzea, arrainak, haragiak eta barazkiak toki ezberdinetan edukitzea da onena (ahal baldin bada tapatuta), konjeladorean elikagai hotzak bakarrik sartu behar dira eta haizerik ez sartzeko egokiena plastikotan gordetzea izaten da (bestela sikatzeko arriskua dago). Bestalde, konjelatutako elikagai guztiek, denborarekin, kalitatea galtzen dute.

- Beste metodoei buruz zer esango zenuke?

- "Envasado al vacio" delakoan elikagaiari airea kentzen zaio; mikroorganismoak polikiago transformatzen dira eta elikagaia denbora gehiagoz mantentzen da. Aditibo kimikoak, berriz, itxura, kolorea, textura... etab. emateko erabiltzen dira baina gehienetan kaltegarriak dira eta beti normatibaren kontrolpean erabili behar dira. Azkenik, irradiazioko metodoetan ez naiz oso aditua baina irakurri dudanez, elikagaiak radiazioa dagoen gela batetan mantentzen dituzte eta horren ondorioz polikiago usteltzen dira. Baina zaporea eta nutrienteak aldatu egiten dira.

Atsedan zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

Esku ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarroia 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTITAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



Uztaila bitartean 54 haur jaio dira Bergaran: 28 mutiko eta 26 neska.

Gurasorik gabe

Umeak haurtzaindegietan ala haur zaintzaileekin?

Amari amatasun baja bukatu eta lanera itzultzeko garaia iristen zationean bikote askok ez du jakiten zer egin: haurra neska batekin laga edo haurtzaindegira eraman. Aurten Bergaran uztaila bitartean jaio diren 54 haurren gurasoetako batzuek aukera egina dute.

Haurtzaindegian goizeko zazpitan atea irekitzarekin batera haurrak iristen hasten dira.

9.30ak aldean sartzen da azkenengo haurra. Guztira 39 dira. Denak ez dira Bergararrak, Oñatitik, Eibartik, Arrasatetik eta Debatik ere etortzen dira. Ordutegia libre sa-

marra da Maribi Ibañezek azaldu digunez: "gurasoak aukeratzen du ordutegia: batzuk 8 ordu egiten badute ere, badira gutxiago edo 4 ordu,

egun erdia, egiten dutenak ere. Adinari dagokionez 3-4 hilabeterekin hasten dira eta, nabilizanez gero, 8 urte bitartean jarraitzen dute". Or-

Ikastolako haurreskolara joaten badira, bazkaltzera haurtzaindegira doaz umeak



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

Taberna Kafetegia

EHIZTARIAK

LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA

Zergatik haurtzaindegia?

■ **Manu Herran eta Nerea Ugarte**

"Askotan neska bat hartzea arriskatzea izaten da ez dakizulako nolakoa izango den, beraz Josu haurtzaindegira eramatea erabaki dugu, astelehenean hasi zen haurtzaindegian. Horretaz gain lanean ordu asko ematen dugu eta neska garestiago aterako litzaiguke".

■ **Mikel Usabiaga eta Nati Gutierrez**

"Inakik 13 hilabete daramatza haurtzaindegian eta oso gustora gaude. Gure ustez etxean jasotako heziketaz gain egokiena haurtzaindegikoa da, besteak beste, beti pertsona berarekin ibili beharrean bere adineko umeekin ibiltzen da".

Zergatik zaintzailearekin?

■ **Migel Moñux eta Belen Txintxurreta**

"3 seme-alaba ditugu, eta gure eta umeen erosotasunagatik hartu genuen neska duela 8 urte. Gure ustez Bergarako haurtzaindegiko lokalak ez dira oso egokiak; beharbada beste baldintza batzuetan egonez gero, planteatuko genuen umeak bertara eramatea".

■ **Iñaki Mujika eta Izaskun Azpiazu**

"Umea ondoezik, logureak edo gaisorik egonez gero haurtzaindegira ez dago eramaterik. Horrelako zerbait gertatuz gero, ez dugu inor umea zaintzeko. Helburua haurra da, lanak egitea bigarren mailan dago".

dutegiari dagokionez desberdinak izaten dituzte bai sartu zein irtetzeko, bai jateko, ekintzetarako...

dira, bai bazkaltzera bai meriendatzera haurtzaindegira joaten dira eta gurasoak etorri bitartean bertan egoten dira.

lanak ere egiten dituzte. Ia denak taldeetan ibiltzen dira, "ez umeak ez gu *asper ez gaitezen*".

Zaintzaile hauen artean denetarik dago. Nagusiek jartzen dituzte baldintzak (ordutegia, solda-

Heziketa proiektua

Eguñeko iharduerak, kanpokoak nahiz barrukoak, adinaren arabera antolatzen dituzte. Haurraren asistentziaz gain, hau da jaten eman, pixoi-halak aldatu etabarrez gain, heziketa proiektu garrantzitsu bat dago. "Denetarik egiten dugu: besteak beste egoera eta leku desberdinetan motrizitatea eta kontzeptuak lantzen ditugu joku, jolas, eskulan zein kantu bidez... denetarik. Txiki-enei gebien gustatzen zaiena kantatzea eta dantza egitea da".

2 urtekoek haurreskolako programa jarraitzen dute. Haurrak ikastolako haurreskolara joaten ba-

Irekiagoak

Maribi Ibañezen ustez haurtzaindegian hazitako umeak irekiagoak izaten dira "txiki-txikitatik adin bereko beste haur batzuekin ibiltzen direlako. Horretaz gain mugimendu aldetik ere sueltoagoak izaten dira:eskuekin eta lan asko egiten da eta nabaritzen da. Beste umeek eskolaratzen direnean ikasten dute hau guztia".

Umea zaindu eta etxeko lanak egin

Haurtzaindegira joaten ez diren haur asko ume zaintzailearekin ikusten ditugu. Gehienek umezain ibiltzeaz gain etxeko



Haurtzaindegian umearen asistentzia bezain garrantzitsua da heziketa.


LARRAÑAGA

eta ZUBIA

Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak, esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94



ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak Fatxadak, eskaparateak...

Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

"Nagusien ordutegiaren arabera ibiltzen naiz. Umea zaindu, bazkaria paseatu... dena egiten dut". Amaia, ume zaintzailea.

ta, e.a). Laura esaterako lanean ari den etxean egoten da astelehenetik larunbata bitartean: "Interna nagoen bakarretakoa naiz. Aurretik Donostian aritu nintzen baina etxetik gertu egoteko aukera atera zitzaidanean hona etorri nintzen. Gainera bemen gehiago irabazten dut eta segurua ere badut. Nabiz eta ni interna egon, nirekin ibiltzen diren zaintzaileak ez daude egoera hobean".

Amaia esaterako 9ak aldean sartu eta iluntzerarte aritzen da "8, 9 ordu..., nagusien ordutegiaren arabera ibiltzen naiz. 60.000 pezeta kobratzen dut eta ez dut segururik. Umea zaindu, etxeko lanak egin, bazka-

ria prestatu... dena egiten dut". Bizkaian umezain ibiltzen direnen el-

karteak egon arren hemen ez dago. "Taldean ibiltzen gara baina beste

taldeetakoekin ez dugu barremanik. Ondo legokegu ere elkartu eta eskubiak aldarrikatzea. Nagusiek euren enpresetan baldintza hobekak eskatzen dituzte eta gero gu baldintza txarretan gaituzte". ■



Hautzaindegira doazen umeak, gurasoak lanean dauden bitartean egun guztia ematen dute bertan, bazkaldu, merienda hartu eta bere adineko umeekin jolastuz.

Bergaran jaiotakoak

1995	54
1994	117
1993	127
1992	122
1991	96
1990	116
1989	130
1988	120
1987	125
1986	143


BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
 ☎ 76 12 31

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



Irizar, 2
 ☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Maribi IZETA Pedagogoa

Gurasoak haurrekin ezin badira egon...

- Haurrak amarekin egon beharko luke; eskaintzen dion denbora guztia gutxi da. Haurra seguruagoa, sortzaileagoa eta garatuagoa izan dadin amak haurrari entzun, berekin jolastu, ibili... eta batez ere berba egin behar dio. Kontutan hartu behar da lehenengo urteak duten garrantzia eta haurrak amarekin pasatzen ez dituen urteak ez direla itzuliko, horrek ez du bueltarik. Gurasoak ikusi eta neurtu behar du ekonomiari (lanera joateari) ala haurrari ematen dion garrantzi handiagoa.

- Haurtzaindegiaren eta ume zaintzailearen alde onak eta txarrak zein dira?

- Alde batetik arlo ekonomikoa dago: umea haurtzaindegira eramatea zaintzailearekin edukitzea baino merkeagoa da. Bestetik, haurtzaindegiko emakumeak heziketan adituak dira eta umezain ibiltzen direnak ez. Honetaz gain haurtzaindegian



"Gurasoak neurtu egin behar du ekonomiari eta haurrari ematen dion garrantzia"

langile bakoitzak aldi berean ume bat baino gehiago izaten du zaintzeko: bat aldatzen ari den bitartean beharbada beste bat negarrez ari da..., umezain dabilenak, be-

rriz, ume bat edo bi izaten ditu eta beti eurekin dago. Bestalde, haurtzaindegiko umeak taldean dagoenez sozialago izaten ikasten du, gauzak konpartitzen, lagunak erres-

petatzen... umea zaintzailearekin dabilenean, ordea, ez dago sozializazio hori.

"Haurtzaindegian, bestalde, umeak, taldean dagoenez, sozialago izaten ikasten du"

- Haurrak bi urterekin eskolara eramateaz zer diozu?

- Demagun haur bat zaintzaile batekin ibili dela eta eskolan duela bera bezalakoekin lehen hurremana. Eskolan irakaslea umeak izan dezakeen arazo edo akatsen batetaz kontura daiteke, heziketan profesionala baita; prebentzio honetaz aparte, haurrak bizitzan zehar ezinbesteko izango dituen ohitura eta arau batzuk ikasten ditu; 2-3 urterekin haurraren motrizidadeak garrantzi handia du eta eskolan hori asko lantzen da.

"Haurrak amarekin egon behar du; eskaintzen dion denbora guztia gutxi da"

AGOITZ
Tapizdenda
 San Lorentzo, 25 BERGARA
 Tfnoa: 76 18 23



AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorentzo, 7 behea.
 ☎ 76 50 39

ARREGI
Eraikuntza materialeak
 Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
 Tfnoa: 76 27 93

Elikaduraren Eguna izan dela eta, zure elikadura asko zaintzen al duzu?




Manuel Pérez
34 urte, langilea

Normalean saiatzen naiz grasarik gabeko gauzak jaten, baina lagunekin eta astebukaeretan zailagoa izaten da zaintzea.




Asun Berriotxo
44 urte, etxekoandrea

Ez dut asko zaintzen baina analisiak gaizki irten ezkeror orduan sartzen zait beldurra. Baina denetik jatea gustatzen zait, pixka bat kontrolatuz.



Luis Angel Pérez
42 urte, langilea

Gauza arinak jaten ahalegintzen gara etxean. Dieta orekatu bat egiten dugu baina denetik janaz. Pixka bat kontrolatu ezkeror ez dago arazorik.



Mariano Etxaniz
64 urte, jubilatua

Errejimen pixka bat egiten dut medikuak aginduta. Fruta eta barazki asko jaten dut eta benetan osasunak eskertzen duela.



Conchi Tena
49 urte, langilea

Bai, zedozer zaintzen dut nahiz eta batzutan nekeza izan. Baina etor litezkeen arazoak prebenitzeko ondo dator eta saiatzen naiz adibidez barazki gehiago jaten.



Kontxi Kortazar
55 urte, langilea

Nik danetik jaten dut eta egunean bi fruta pieza hartzen ditut. Baina ez dut ezer berezirik egiten eta analisiak ondo irten zaizkit.

LARUNBATETAN

LARUNBATETAN

INGELES eta **ALEMANA**

**KLASEAK HASTERA DAUDE
APUNTATU ZAITEZ, ORAINDIK EZ BADUZU EGIN!!**

LARUNBATETAN • LARUNBATETAN • LARUNBATETAN
9.30 - 12.30 9.30 - 12.30 9.30 - 12.30

Araba Etorbidea, 4
ARRASATE



Telefonoak:
79 01 32 / 79 65 54

**SANTOS
IRRATI-TB**

**ELEKTRAGAILUAK
SUKALDE ALTZARIAK
ARGIZTAPENA
ANTENA KOLEKTIBOAK
TB, BIDEO ETA SOINU
APARAILUEN
KONPONKETA**

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10



Juradoa

Datorren urtetik aurrera Espainiako Estatuan juradoa deriztan eredia martxan jarriko da.

Gaur egun epaiketa lana edo epaitzea justizi administralgoaren barranean, zenbait salbuespen ezik, pertsona bakar bati dagokio; juradoari esker talde-lan bilakatuko da.

Beste kasu askotan bezala, honetan ere amerikar filmeen eragina nabarmena da; filme horietan ikasi baitugu juradoari dagokion eginkizuna nolako den.

Bi jurado moeta bereizten dira. Herritar soilez osatua (jurado puro delakoa) eta jurado mixtoa; hau da, herritarrekin batera legegizonak nahastuak aurkitzen direnean. Lehenengo moeta izan da aukeratua; hots, hiritar soilez osaturiko juradoa.

Juradoari edozein delito epaitzea dagokio edo mugatua da bere lan eremua? Zerrenda baten finkatu dira juradoaz baliaturik epaituko diren delito moetak; alegia, ez dira delito guztiak bertan ikusiko baina bai oso garrantzitsuak direnak.

Juradoa martxan jartzeak iraultza txiki bat ekarriko du; pentsa bergararar hainbat eginkizun berri honetan murgildurik aritu beharko duzuela.

Gai honi buruzko galderak ere ugari dira; ongi ordaindua izango den, lan eroso bilakatuko den, oinarritzko presaktuntza eskuratzeko aukerarik aurkituko duten...

Normalki gizartea legeen aurretik abiatu ohi izan da; oraingoan ez dakit alderantziz ez ote den gertatutako. Nere susmo kaxkarrak errealitate bihurtuko ez direlakoan...

Sabin ZABALETA



Euskal Herria Askatu

Ceutan afrikar batzuei Espainako poliziak emandako tratuen berri izan dugu. XXI. mendearen atarian ote gaude? Europarren asmo bakarra hirugarren munduko ei atea ixtea da, gu ondo bizitzeko besteek sufritzen badute eta gosez hiltzen badira ere. Munduan ez dago justiziarik. Eta España, bietako bat, edo Afrikaren burua edota Europaren ipurdia da. Nahi duzuen. Gainera, Ceuta eta Melilla Afrika dira, Euskal Herria Euskal Herria izan behar litzatekeen bezalaxe.

Ni aspertu naiz. Condek 600 milioi pezeta ordaintzeko agindua firmatu zuen, dirua norentzat zen jakin gabe. Hori ere sinistu egin beharko dugu eta bitartean bankeroa kalean da. Nere lagun batzuk gutxiagotatik daude kartzelan. In-txaurren nahi dutena egin dute eta Galindo jeneral izendatu dute. Duela zortzi bat urte kritika egin zutenetako batzuek (Negu Gorriak) 15 milioi ordaindu behar dizkiote bere ohoreak kaltea izan omen zuen eta. Gatito lindoren jubilazioaren zati bat ote da? Eta orain kritika zaparrada, parlamentuan komisiok eta iritzi publikoa aztoratuta. Baina ez al dira ba isil isilik izan hainbat urtetan?

Legeak ez du ezertarako balio. Amedo kalean da. Itoizko urtegia ilegala bada ere, egingo dute edota bestela legea aldatu. Hau guztia sustarretik aldatu behar da eta Euskal Herri berri eta justu bat sortu behar dugu, guztiok berdinak garela eta aukera berdinak ditugula. Euskaldunok asteburuan bi zita ditugu, larunbatean egunkari berria koloretan eta igandean AEK eguna Zumaian. Ah eta hurrengo asteburuan Itoitzen aldeko manifa eta Oiartzunen kontzertua.

Jon ALTUNA



Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea


Elena



Tfnoa: 77 14 24

■ **Ebakuntza arrakastatsua**

Haritz Saidí Olaortua, estenosis gaitza duen 11 urteko mutiko antzuolarra, joan zen irailaren 21ean operatu zuten Bartzelonako eritetxe ospetsu batean. Galofrén doktoreak egin zion ebakuntza, hain zuzen ere, estenosis hori desegin eta estomagoa bizkarreko ligamento bati josi diote. Operazioa ondo joan da, baina urtebete itxoin beharko




Eskumako argazkian Haritz Saidí Galofren doktorea eta erizain batekin eta hemen goikoan, ostera, bere aita Elbachir, Meho Kodro eta honen anaiarekin.

du Haritzek guztiz sendatuta geratu den ala ez jakiteko. Bartzelonan, bere lagun **Meho Kodro**rekin eta Bartzelonako jokalariekin egoteko aukera izan zuen. Haritzen gurasoek, ebakuntza hau egin ahal izateko diruz lagundu dieten hainbat enpresa eta pertsonari, bereziki Lacor eta Lazpiur enpresei eta Eroski Bidaiak-i eskerrak eman nahi izan dizkiete, eta baita "ebakuntza egiteko trabak jarri dizkigutenei" ere.

■ **Liburuak alde batetik bestera**

Zahartutako liburuak eta Udalak saltzeko dituenak **Kultur Etxetik Irizar Etxera** eramaten aritu dira udal langileak egunotan. Kaja ugari kargatu dituzte eta liburuekin zer egin erabakitzen den bitartean, Irizar Etxean uztea erabaki da. Esan bezala, zahartutako liburuak, Udalaren bilduma ezberdinak eta beste hainbat libururi momentuz erretiroa ematea erabaki da, liburu berriei tokia lagatzeko. Gordetakoak ezin izango dira kontsultatu eta espero dezagun faltarik ez somatzea...



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21



zumelaga
JATETXEA

etorri eta galdetu!!

EZKONTZAK, DESPEDIDAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, MENU BEREZIAK...




Mikel Gaztelurrutia

PIANO ETA SOLFEO KLASEAK

(Goi mailako titulaziodun maisua)

☎ 76 50 59



■ **Bakearena**

Jon Balentziaga artista bergararrak egindako eskultura jarri da Santana ermitaren atzekaldean. Balentziagak, herriko artistek Ortonovoko italiarrekin egindako interkanbioaren ondoren, beka bat eskuratu zuen Carraran ikastaro bat egiteko eta horren ondorio dugu Santanan jarritako lana. Nola ez, Carrarako marmolez egina dago, "Bakearena" izenburua dauka eta Balentziagak Poligonoan jarri zuen "Euskadiren bidea" eskulturaren jarraipena izan nahi du.

■ **Hiru haundietara**

Pasa den asteburuko zubian hiru haundietara mendi irteera antolatu zuten bailarako euskara elkarteek eta bertan izan ziren argazkian Aitzgorriko puntan ikus ditzakezuen bost bergarar



gazteak. **Aizkorri** (Gatzagan lo egin zuten), **Anboto** (Urkiolan lo) eta **Gorbea** igo zituzten hiru egunetan Asier Gabilondo, Xabi Garitano, Aintzane Mendizabal, Arkaitz Arana eta Aitor Muruamendiarezek. Argazkian agertzen den txakurrak ere hiru haundiak egin zituen ala ez jakiterik ez dugu izan, baina antzematen zaio leher eginda heldu zela Aizkorrira. Bost gazteak, berriz, sasoiatsu daudela erakutsi zuten. Ah!, atzealdean ikus daitekeen gurutzea Miguel Altuna institutuan egindakoa da.

Zertan dihardute ba?



Nekane Gabilondo

20 urteko bergararra JARDUN Elkarteko Gaztetxoaren Taldeko dinamizatzaile berria dugu. Nekane Gabilondok Gizarte Lana ikasketak burutu ditu Iruñean eta hemendik aurrera 12 urtetik 15 urtera bitarteko gaztetxoei zuzendutako iharduerak bultzatzeaz arduratuko da. Berak aipatu digun bezala, "Kartzela Zaharra bebar bezala egokitu bezain laister lanean hasteko asmoa dugu eta horretarako ikastaroak, aktibitate libreak, irteerak..., etab. antolatuko ditugu. Gure asmoa abendurako martxan egotea da baina ikusi egin bebar. Ea jendea animatzen den...".

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

A mets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

Gurutzne Elkorro

Gurutzne Elkorok (26 urte) Irudi eta Soinu ikasketak burutu zituen baina kamara atzean baino aurrean egotea gehiago gustatzen zaio. Dagoeneko ETB-1eko Goenkaleko bi kapitulotan eta Txiskola lehiaketan hartu du parte eta horrez gain Aritzetan abesten du.

- Nola sortu zitzaizun abesteko zaletasuna?
- Txikitatik gustatu izan zait.
- Rocka ala musika polifonikoa?
- Rocka, martxa gehiago duelako.
- Musika talde bat?
- Love & rockets.
- Entzundako azken kontzertua?
- Willy De Villerena, Getxon.
- Ze izatea gustatuko litzaizuke?
- Antzesle edo dantzaria, interpretazio mundua gustokoa dut.
- Filmerik gustokoena?
- La escalera de Jacob.
- Pelikula bat norekin?
- Richard Gere-rekin.
- Telebista programa bat?
- 64.
- El príncipe de Bel Air ala Goenkale?
- Goenkale, hemengo saltsa



"Richard Gere-rekin pelikula bat egitea gustatuko litzaidake eta gustokoen dudan telebista saioa 64 da. Musika entzun edota irakurtzea gustatzen zait eta kontra egiteak sutan jartzen nau. Amodioari, lanari eta diruari ematen diot lehentasuna bizitzan"

erakusten duelako.

- Egindako azken oparia?
- Lora batzuk, arrosak, nere amari.
- Eta jasotako azkena?
- Izara batzuk.
- Bizitzan, zeri ematen diozu lehentasuna?
- Amodioari, lanari eta diruari.
- Udazkeneko gauzarik onena?
- Ilea jaustea behintzat ez! Paisaia beharbada...
- Zertan zara trebea?
- Dantzan.
- Hobby bat?
- Musika entzun, irakurri...
- Eta liburu bat?
- Me declaro vivo (Chamalú).
- Nola janzea gustatzen zaizu?
- Bariatzea gustatzen zait: narruzko prakak, gona motzak...
- Zein permufe erabiltzen duzu?
- Azur de Puig eta Rogger & Galet.
- Kirol bat?
- Txirrindularitza.
- Olano ala Indurain?
- Momentuan Olano.
- Pertsonaia historiko bat?
- Einstein.
- Zerk jartzen zaitu sutan?
- Kontra egiteak eta txilioak.
- Zer egitea gustatuko litzaizuke?
- Munduan zehar bidaiatzea.
- Amaitzeko, txiste labur bat.
- Badakizu nola esaten den naparreraz "eyaculación precoz"?
- Ai ba-ai ba-ai ba-ai ba-ai ba-ai ba!!!

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

ITXASMENDI
ERREKADISTA
Barrenkale, 36
BERGARA
☎ 76 50 64 / 76 13 61
EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,
ARETXABAETA, ESKORIATZA eta OÑATIRA.

**TABERNA
ZAHARRA**
Jatetxea
bazkari eta
afariak
Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

IZADI PILI GISASOLA
Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83
Santiveri
Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

EGUREN
GESTORIA
Maria Pilar Eguren Díez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta Plaza, 3 behea
☎ 76 21 65 / 76 24 45

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Bidekurutzetan. 50 m2. Berriztuta.
☎ 71 53 49 (20.00-22.00).

Apartamentu bat alokatuko nuke. ☎ 76 25 81.

Garaje bat alokatzen da.
☎ 76 55 50.

Pisua erosiko nuke Bergaran. ☎ 76 29 95.

Bi gelatako pisua alokatuko nuke. ☎ 76 21 43 (Igone).

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 27 39.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisu edo ganbara bat alokatuko nuke. ☎ 76 47 85.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 18an. ☎ 76 31 57.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua salgai Antzuolan. ☎ 76 60 39.

Garajea alokatzen da Masterrekan. ☎ 76 45 10.

Pisua salgai Joan XXIII plazan. ☎ 76 27 80.

Garaje bat alokatuko nuke Burdiñatan. ☎ 76 33 72.

DENETARIK

Vespa Iris 200 motorra salgai. ☎ 76 08 51.

Fiat Tipo (16 balbula) kotxea salgai. SS-AH matrakula. ☎ 76 06 69.

Karrerretako bizikleta salgai. Prezio interesgarria. ☎ 76 60 69.

Kawasaki KX 125 motorra salgai. ☎ 76 25 50.

Mendiko bizikleta salgai. ☎ 76 15 76 (Xabi).

Tosai kerosenozko estufa berria salgai. ☎ 76 07 61 (eguerdian).

Indioilaria eta bost katakuma (siamesak) salgai. ☎ 76 64 65.

Motozerra elektrikoa egoera onean salgai. ☎ 76 29 95.

Algortan pisua osatzeko bi pertsona behar dira. ☎ 76 41 28.

Flauta trabesera egoera onean salgai. ☎ 76 35 56.

Taberna bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 07 74

Masaje zerbitzua etxez etxe. ☎ 76 41 35 (Virginia).

Katukuma siamesa (marroi argia) galdu dut. ☎ 76 44 22.

Opel Corsa kotxea, mendiko bizikleta, radiokasetta, sofa ohea eta bi butaka salgai. ☎ 76 07 87.

LANA

Aleman klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

OHOko klaseak ematen dira. ☎ 76 11 89 (Enmanuel).

Matematika, fisika eta kimikako klaseak. ☎ 76 44 34.

Aleman diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxeko lanak egin edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 79 93 17.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Gutxitu psikikoan hezitzaile batek gutxituak, zaharrak edo haurrak zaintzeko lituzke. ☎ 76 52 08.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89 (Rosalario).

Esperientziadun neska batek etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko lituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

Esperientziadun neska batek ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 28 16.

Matematika eta zientziatako klaseak. ☎ 76 31 31 (Juanma)/ 76 45 80 (Andoni). Barrenkalea 13, 3.a.

Esperientziadun peluke-
ra bat behar da. ☎ 76 56 69.

Ingenieritza ikasten diharduen mutil batek OHO, BBB eta UBiko **partikularrak** ematen ditu. ☎ 76 53 88 (Pedro).

Matematika, zientziak eta diedriko klaseak (UBIra arte). ☎ 76 24 31 (Eneko).

IGARZA**MERZERIA
LENZERIA**

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

**EDEL
TAPIZDENDA***Etixerako artikuluetan aukerarik
haundiena eskaintzen dizugu***Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltxak,
edredoak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta, 14 BERGARA**ileapaindegia**

eder gela

disdira


Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

SUBIJAi**Gazteentzako moda**

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

GURIDI altzariak**Era guztietako
altzariak**

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 0 2



"Gaur egun herri guztietan daude pintoreak. Bergaran errentetatik bizi garela uste dut azkenaldian"

"Gaur egun oihan ezkutuenean bizita ere New York, Madril edota Pariseko informazioa jaso dezakezu"

ABDON JUARISTI, PINTOREA


"Nire kuadro bat ikusten duenak berehala daki Juaristiren koadro bat dela"

Argia, kolore beroak eta paleta erabiltzeko duen maisutasuna azpimarratu dute arte-kritikoek. Abdon juaristik (46 urte), orain dela 20 urte inguru bere bakarkako lehen erakusketa egin zuen toki berean, Donostiako Echeberria galerian, erakutsiko dituzten azkenaldian egindako lanak ostiral honetatik aurrera.

- Zure lehen erakusketa antolatu zuen galeriaren eskutik zatoz oraingoan...

- Bai, kointzidentzia bada ere, Donostiako Echeberriarekin egin nuen bakarkako lehen erakusketa. 40 koadro inguru erakutsiko ditut, euskarri bezala lientzoa erabiliz oleoz margotuak. Euskal Herriko paisaiak dira, figuratiboak, baina estilo propio batekin eginak, intentzio pertsonal batekin. Nire kuadro bat ikusten duenak berehala daki Juaristirena dela. Pintzeladaren tratamenduak, koloreak, tonalitateak, beste batzuegandik bereizten naute.

- Herriko beste hainbat pintore bezala, Simon Arrietarekin



"Oleoz egindako 40 bat paisaia erakutsiko ditut erakusketa honetan".

ikasitakoa zara. Guztiak estilo berekoak al zarete?

- Ez, ez. Agirre, Ugaldede, Gantxegi, Alustiza, Lazkano bera, Simon Arrietarekin hasitakoak dira, baina bakoitzak bere bidea jarraitu du eta ez dut uste geure artean antzekotasunik dagoenik. Bergarako pintura eskolarik ez da esistitzen.

- Posible al da herri batetan bizi eta pinturaren munduan murgilduta egotea?

- Bai. Gaur egun da-

"Simon Arrietarekin pintore asko hasi ginen, baina bakoitzak bere bidea jarraitu du eta gure artean ez dago antzekotasunik. Bergarako pintura eskolarik ez da esistitzen"

goen informazioarekin oihan izkutuenean ere bizi zaitezke eta New York, Madril edo Parisen egiten denari buruzko informazioa jaso dezakezu.

- Zergatik dago Bergaran hainbeste pintore eta hain eskultore gutxi?

- Beti egon da tradizio bat, hasi Simon Arrieta edota Tellaetxerekin eta gaur egun arte. Bergaran beste herri batzuetan baino lehenago hasi ginen pintatzen, Arrasaten ez zegoen ezer..., baina gaur egun toki guztietan daude pintoreak. Errentetatik bizi garela uste dut.

- Gustokoen dituzun pintoreak?

- Asko. Hasi Altamirako pintura rupestreetatik eta Velázquez, Goya, impresionistak... Gaur egungoetatik espainiar mordo bat, euskaldunak ez hainbeste. Antonio López, Eduardo Naranjo, Carmen Lafont, Miquel Barceló, Lucio Muñoz...

- Zer deritzozu Arteleku bezalako tokiei buruz?

- Arte mota batera mugatuta dago. Donostian arteari ematen zaion enfokea ez zait gustatzen, zabalagoa izango balitz...

1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	4	2	7	6
2. MONGATXURRA	3	1	11	0
3. OGIZUN	3	1	4	2
4. MADURA INDUSTRIAS GOL	3	2	7	6
5. ORTZI ANGIOZAR	3	1	3	1
6. OZAETA	3	2	5	6
7. KABIA	1	1	2	2
8. BAR CANALEJAS	0	1	2	3
9. BILDURBAREK OPE-LAM	0	1	2	3
10. BERGATRANS	0	1	1	3
11. ARLOTEAK	0	0	0	0
12. UFALA	0	1	0	11

2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. AUTOBEREZI	6	2	16	1
2. KAYAK OS JARDINEIROS	4	2	7	4
3. HARTU ZAMAK	4	2	4	2
4. OH ZEREZOS	3	1	14	2
5. INDAR GORRI	3	1	12	5
6. UVE BIKOITZA	3	1	6	4
7. PAGOMENDI	3	2	5	16
8. ETXAGI	1	1	6	6
9. NAHIKARI HOOLIGANS	1	2	9	12
10. ERI	0	2	5	9
11. A ZE FLAXA	0	1	1	13
12. HALTZARI	0	2	4	17

3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. NEKROFIKOS	6	2	9	6
2. EZINLEIKE	4	2	9	4
3. CONTSRUCC. BERGRA	4	2	12	8
4. AMOZKIBAR	3	1	4	0
5. MOSKIS	3	1	4	3
6. LA JUVE	3	2	12	10
7. SHAKTALE	0	1	3	4
8. IGANDEKOAK	0	1	3	5
9. SOROPOTROAK	0	1	6	10
10. ARI ARI	0	1	6	9
11. EH BITERRAK	0	1	0	4
12. KIROLZALEAK	0	0	0	0

4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	6	2	12	5
2. TXIPIRON	6	2	10	5
3. ALDOKA MALDOKA	3	1	17	0
4. PATXARAN TEAM	3	2	12	5
5. GUADALEST	3	1	4	3
6. MATXAKATEGI	1	2	6	10
7. PATA NEGRA	1	2	4	9
8. PJS	0	1	3	4
9. LABEGARAIETA	0	1	1	2
10. OSINTXU	0	1	0	9
11. XURRUPAK	0	1	0	17

TALDEAK



Amozkibar taldea 9 lagunek osatzen dute eta dagoeneko 5 urte daramatzate txapelketan jokatzeko. Taldea German Balanzategi, J. J. Zabaleta, Rafael Moral, Ion Lazkano, Manual, Alberto, Aitor Curado eta Clemente Rodrigok osatzen dute. Hirugarren mailan daude eta euren helburu bakarra ondo pasatzea da. "Hiru urte daramatzagu 3. mailan jokatzeko eta betiko txarrak jokatzeko dugu" esan digute. Jokatzeko gain, futbitik kanpo ere biltzen dira eta txapelketa amaitzen denean urtero afaritxo bat egiten dute denboraldiko gazi-gozaok komentatzeko.

PARTIDUAK

LARUNBATA BARRUAN

- 09.00: Xurruak-Osintxu • EH Biterrak
- 10.00: EH Biterrak-Soropotroak • Osintxu
- 11.00: A Ze Flaxa-Uve Bikoitza • Soropotroak

IGANDEA BARRUAN

- 16.00: Arlotek-Kabia • Bar Canalejas
- 17.00: Bar Canalejas-Ortzi Angiozar • Kirolzaleak
- 18.00: Amozkibar-Kirolzaleak • Ufala
- 19.00: Bergatrans-Ufala • Mongatxurra
- 20.00: Mogatxurra-Bildurbarek • Bergatrans

IGANDEA KANPOAN

- 16.00: OH Zerezos-Etxagi • Indar Gorri
- 17.00: Indar Gorri-Autoberezi • Ari Ari
- 18.00: Ari Ari-Shaktale • Autoberezi

OHARRA

Kayak Os Jardineiros taldeko Goyori bi partidutako zigorra ezarri dio Antolaketa Batzordeak, batzordeko kide batek esandakoei jaramonik ez egiteagatik.

EMAITZAK

1. MAILA

BAR CANALEJAS-OZAETA	0 - 3
MONGATXURRA-UFALA	11 - 0
MADURA INDUSTRIAS GOL-ERROTAGAIN	4 - 5
OGIZUN-OZAETA	4 - 2

2. MAILA

HARTU ZAMAK-ERI	3 - 1
HALTZARI-PAGOMENDI	2 - 3
INDAR GORRI-AUTOBEREZI	0 - 3
NAHIKARI HOOLIGANS-KAYAK OS JARDINEIROS	3 - 6

3. MAILA

CONSTRUCCIONES BERGARA-SOROPOTROAK	10 - 6
MOSKIS-LA JUVE	4 - 3
IGANDEKOAK-NEKROFIKOS	3 - 5
CONSTRUCCIONES BERGARA-EZINLEIKE	2 - 2

4. MAILA

LABEGARAIETA-TXIPIRON	1 - 2
MATXAKATEGI-PATA NEGRA	2 - 2
FAC-PATXARAN TEAM	5 - 3
GUADALEST-PJS	4 - 3

TALDEAK



EH Biterrak talde bateranoenetakoa dugu Labegaraietako txapelketan. Aurtengoarekin 8 urte egin dituzte eta esan digutenez, "gero eta okerrago goaz". Izan ere lehen mailan ibili ondoren, aurtun 3. mailan dabilta. Taldea Andoni Larrañaga, Roman Unamuno, Jose Luis Osinalde, Julen Arzelus, Alberto Biana, Imanol Agiriano, Aitor Lizarralde, Luis Ugarte, Jabier Retegi, Josean Aizpurua eta Angel Iriondok osatzen dute. Hasieran taldeak Erdibiterrak izena zuen, baina marketing kontuak direla eta modernoagoak izateko EH Biterrak izena jarri diote orain dela bizpahiru urte.

VI. Fontsi memoriala

Larunbatean egun guztian zehar kirola nagusi

Larunbatean jokatu-ko da Seminarioko patioan VI. Fontsi Memoriala eta antolatzaileek dena prest dute.

Horrela bada, bihar goizeko 8etan futbito txapelketa hasiko da Seminarioko patioan eta 12 orduz jarraian partiduak izango dira ikusgai. Antolatzaileek gogorarazi nahi die txapelketan parte hartuko duten taldeei, partidura 5 minutu baino beranduago joaten dena kanporatua izango dela. Neurketa bakoitzak 20 minutu iraungo ditu, finala izan ezik, honek 25 minutu iraungo baititu. Berdinketa izanez gero, penaltiek erabakiko dute irabazlea. Sariei dagokienez irabazleak 30.000 pzta. jasoko dituen bitartean, bigarrenarentzat 15.000 pzta. izango dira.

Bestalde, 14,45etan mendiko bizikleta trabezia izango da. Bertan par-




Mendiko bizikleta ibilaldian jende ugari aritu izan da aurreko edizioetan.

te hartzeko irteerako orduan Seminarioko patioan azaldu beharko da. Ziklismo federatuek 400 pzta. ordainduko dute eta gainontzekoek 600 pzta. 14 urtez azpikoek ez dute ezer ordaindu behar eta

guztiek kaskoa eramatea derrigorrezkoa da. Ibilaldiari dagokionez, esan behar da, 14 urtetik gorakoek 36 km. egin behar dituztela eta 14 urtetik, beharokoek, berriz, 21 km.ko ibilbidea.

Azkenik, aipatu dezagun arratsaldeko 4etan hiruko saskiraketa txapelketa jokatu dela Seminarioan bertan. Irabazleak 5.000 pzta. jasoko ditu eta bigarren sailkatzen denak 2.500 pzta.



Bixente Pagaldeaik maratoi guztietan hartu du parte.

Donostiako maratoin

Joan zen igandean jokatu zen Donostiako maratoinen aurtengo edizioa eta bertan parte hartu zuten 5 bergararrek lasterketa amaitzea lortu zuten. Bostek lasterketa ona egin zuten eta 761 korrikalarien artean, Jabier Moreno 2 41' 28" denborarekin 68. postuan sailkatu zen. Manuel Diaz, berriz, 100.ena izan zen 2 45' 29" denborarekin eta Roberto Zurro 109.ena 2 47' 06" denborarekin. Basilio Aranburu, lasterketan zehar arazo batzuk izan ondoren, 130. postuan sailkatu zen 2 50' 57" denborarekin eta Bixente Pagaldea, Donostiako maratoin guztiak korritu dituen bergararra, 236. izan zen 3 02' 26" denborarekin. Ez dakigu 5 korrikalari hauek Bergararik joandako bakarrak izan diren, baina Gipuzkoako Atletismo Federazioa deitu dugu maratoin zenbat bergararrek hartu zuten parte jakiteko eta ez digute datu hori eman. Horregatik beste bergararren batek proban parte hartu baldin badu barka dezala bere izena ez bada agertzen.

FUTBOL PARTIDUAK

◆ Bergara-Mundarro

Preferente maila.

Larunbata, 16.00. Agorrosin.

◆ Bergara-UDA

Lehen errejonala.

Igandea, 16.00. Ipintza.

◆ Bergara-Santo Tomas

Lehen mailako infantilak.

Larunbata, 11.30. Ipintza.

◆ Bergara-Aloña Mendi

Emakumezkoak.

Larunbata, 10.00. Ipintza.

ESKUBALOI PARTIDUAK

◆ Bergara-Urola

Kadete mutilak.

Larunbata, 17.45.

◆ Bergara-Tolosa

Senior mutilak

(2. territoriala).

Larunbata, 19.00.

◆ Bergara-Arrasate

Junior mutilak.

Igandea, 10.00.

◆ Bergara-Bidebieta

Kadete neskek.

Igandea, 11.15.

◆ Bergara-Bidebieta

Jubenil neskek.

Igandea, 12.30.

Guztia kiroldegian.

SASKIBALOI PARTIDUAK

◆ Bergara-Aloña Mendi

Kadete neskek.

Larunbata, 12.15.

◆ Ibil Bergara-Ordizia

Senior mutilak.

Larunbata, 16.15.

Biak kiroldegian.

BEHOBIA-DONOSTIA

Azaroaren 12an jokatuko den Behobia-Donostiaren 31 ediziorako autobusa antolatuko du Zaleak atletismo taldeak. Interesa duzuenok telefono hauetara deitu dezakezue: 76 20 31 eta 76 32 39.

Asier Garitano

Cadiz taldetik kanporatua

Asier Garitanok bi denboraldi daramatza Cadiz aldean eta aurtengo denboraldian 6 partidu jokatu direnean beste 4 jokalarirekin batera taldetik bota egin dute. Cadizeko direktiboek esan diotenez kanporaketa errendimendu faltagatik izan da. Garitano Andaluzia aldean da oraindik eta bere eritzia jakiteko telefonoz hitz egin dugu.

- Zergatik bota zaituzte taldetik?

- Errendimendu faltagatik bota gaituela dio entrenatzaileak, baina guri ez digu ezer esan aurpegira. Harrigarria iruditzen zait erabaki hori, izan ere jokatu ditugun 6 partiduetan, kanporatutako 5 jokalariorik partidu guztietan jokatu dugu. Erabaki honekin entrenatzaileak bere burua zuritu nahi izan du emaitza txarrak izan baititu taldeak. Baina, azkenean aste honetan bertan, bera ere bota egin dute taldetik.

- Orain ze egoeratan aurkitzen zara?

- Cadizekin irtenbide bat bilatu nahi izan dut, baina eurak ez daude irtenbide hori bilatzeko prest eta azkenean epaitzeara jo behar izan dut. AFEko (Espainiako Futbolarien Elkarte) abokatuekin jarri gara harremanetan eta esan digutenez auzia erraz irabaziko dugu. Baina horretarako denbora behar da, 2 edo 3 hilabete, eta bitartean Bergarara noa nire kabuz edo beste talderen bate-

an entrenatzera. Auzia konpondutakoan beste talde bat bilatu beharko dut eta ez dut uste arazorik izango dudarik. Oraindik 25 urte ditut eta futboleko gauza asko egin dezaket.

- Denboraldi hasieran talde batzuren eskaintzak izan zentuen...

- Bai, beste talde batekin aurre-kontratua nuen sinatuta, baina Cadizekoek entrenatzailearen planetan sartzen nintzela esan zidaten eta gelditze-ko eskatu zidaten.

- Zuen kasuak oihar-

tzun handia izan du.

- Direktibak uste zuen gauzak Cadiz barruan geratuko zirela, baina COPEko Jose Maria Garciak eta SERreko De la Morenak deitu ziguten eta euren irratian zuzenean izan ginen. Gainera euren laguntza osoa izan dugu eta horrek oso urduri jarri du direktiba.

- Bestela, zer moduz Cadiz aldean?

- Jendearekin ondo, ez dut izan adaptatzeko arazorik. Orain Bergarara noa eta ea abenduan zer bait irtetzen den.



"Orain Bergarara noa eta ea abenduan zer bait irtetzen den"

"Entrenatzaileak bere burua zuritu nahi izan du emaitza txarrak izan baititugu"



Eskola publikoko haurrak

Orain 20 urte inguru Poligonoko Eskola Publikoko gimnasioan ateratako argazkia duzue goikoa. Ikasleek 7 bat urte izango zituzten orduan, OHoko bigarren mailan ari zirela atera baitzen argazkia. Gaizto aurpegiak, formagoak... maisuak lan dexente izango zuen ikasleak "bide onetik" eramateko. Astebukaeran lagunen txantxak jasan beharko dituzte argazkiaren kontura. Horra hor, ezkerretik eskumara, argazkian agertzen direnen izenak.

Goian: Miguel Angel Hélices "Popeye" irakaslea, Juan Carlos Jaso, Javier Irigoyen, Jon Suinaga, Ruben Dueñas, Jose Ignacio Millán, Juan Carlos López, Alfredo Alvarez, Jon Iturriaga, Eduardo Jauregi, Iñigo De Pedro, Ismael Mondragon eta Javier Vicente.

Erdian: Enrique Ortega, Miguel Angel Arregi, Jose Manuel Muñoz, Gotzon Aranzabal, Iñigo Larrañaga, Jose Ignacio Meabe, Joseba Cusi, Valentin Kalboetxeaga, Francisco X, Ramon Angel Rubio, Emilio Vinuesa, Asier Labayen eta Moises Etxaniz.

Jarrita: Enrique San Nicolás, Félix Osuna, Miguel Angel, Paco, Ramon Trillo, Menor, Jose Antonio Borobia, Juan Francisco Pescador, Ander Alberdi, Joseba Larrañaga, Joseba Gallastegi, Carlos Orbea eta Carlos Larrañaga.

Argazkia: Carlos Orbea

Egunkaria
1995eko urriaren 21 - Vi urtea - 1.345 zenbakia - Saindurria: 110 pta. 5,5 librea

Urriaren 21ean berriturik
Orain kolorez eta orrialde gehiagorekin

... azala eta mamia!

10
POLIZA

Trebol
POLIZA

10s
POLIZA

Lider
POLIZA

Todo Riesgo
POLIZA

Todo Riesgo
900
POLIZA

7
POLIZA

Bizka
POLIZA

GOGORATU!! ORDAINKETA ERRAZTASUNAK ETA %50 ARTEKO BEHERAPENAK ISTRIPUAK EZ IZATEAGATIK

Inoiz ez du aseguru etxe batek halako aukera zabalik eskaini. MAPFRE MUTUALIDAD-i esker, hemendik aurrera izango duzu zer aukeratu. Edozein direla ere zure beharrak eta nahiak, zure autoarentzako neurriko aseguruak aurkituko duzu beti. Halá seguru izan zaitez. Seguru eta babestuta. Zure atzean auto-asegurutan buru den etxea izango duzulako.



MAPFRE
MUTUALIDAD

Simon Arrieta, 3 BERGARA
☎ 76 28 79 / 76 18 80



LILURA

Edertze Institutua

Bidekurutzeta, 7 1. ☎ 76 31 71

LILURA EDERTZE
INSTITUTUAREN
AZKEN
NOBEDADEA!!

BETIRAKO DEPILAZIO
ELEKTRIKOA!!

- Aurpegi zein gorputzaren edozein ataletan
- Gizon eta emakumeentzat

✓ **DENBORA GUTXIAGO**
✓ **ETA MINIK GABE**



KONPROBA EZAZU!!

JAKINA



BAINUAK



ZERAMIKAK



SUKALDEAK

Zure sukaldea edo bainua berritzeko eta amueblatzeko
behar duzun guztia eskainiko dizun
DENDA ESPEZIALIZATUA.
Proiekturik exijenteenari ere aurre egiteko gai den
TALDE PROFESIONALA dugu.